

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

304/2016 Foru Agindua, urriaren 14koa, onartzen duena indargabetzea uztailaren 15eko 234/2016 Foru Agindua, Arabako Lurralde Historikoko toki jakin batzuetan sua erabiltzea salbuespenez eta aldi baterako debekatu zuena, bai eta abuztuaren 1eko 241/2016 Foru Agindua ere, 234/2016 Foru Aginduaren I. eranskineko tokiko parkeen zerrenda aldatu zuena

Nekazaritza Saileko foru diputatuaren uztailaren 15eko 234/2016 Foru Aginduaren bidez, debekatu egin zen, salbuespenez eta aldi baterako, Arabako Lurralde Historikoko toki jakin batzuetan sua egitea.

Geroago, abuztuaren 1eko 241/2016 Foru Agindua onartu zen, 234/2016 Foru Aginduaren I. eranskineko tokiko parkeen zerrenda aldatu zuena, barbakoa batzuk egoera txarrean zeudelako, parke batzuen inguruko landaretza oso suharbera zelako eta baso suteak izateko arrisku handia zegoelako.

Uztailaren 15eko 234/2016 Foru Aginduaren bigarren xedapen zatiak ezarri zuen sua egiteko debekua salbuespenezkoa izango zela eta aldi baterako iraungo zuela, eta indarrean egongo zela harik eta berariaz eraginik gabe utzi arte baldintza meteorologikoak aldatzearen ondorioz.

Udazkena hastearekin batera, eguzkialdia murriztu da, tenperaturak epelagoak dira, hezetasun maila handitu da eta prezipitazioak ugaritu dira eta, ondorioz, sute arriskua txikitu egin da; hori dela eta, egokitzen jotzen eta, beraz, proposatzen da 234/2016 Foru Aginduak sua erabiltzeko ezarritako aldi baterako debekua kentzea, eta, horrenbestez, indargabetzea abuztuaren 1eko 241/2016 Foru Agindua, 234/2016 Foru Aginduaren I. eranskineko tokiko parkeen zerrenda aldatu zuena.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Indargabetzea Nekazaritza Saileko foru diputatuaren uztailaren 15eko 234/2016 Foru Agindua, Arabako landa ingurunean sua erabiltzea salbuespenez eta aldi baterako debekatu zuena, bai eta abuztuaren 1eko 241/2016 Foru Agindua ere, 234/2016 Foru Aginduaren I. eranskineko tokiko parkeen zerrenda aldatu zuena.

Bigarrena. Sua egitea baimentzea horretarako beren-beregi prestatuta dauden tokietan, Nekazaritza Sailak sutea eragiteko arriskua dagoen eremuetarako kontraktorik adierazi ezean.

Hirugarrena. Sua egiteko beren-beregi prestatuta dauden tokietatik kanpo, zurezko eta belarrezko espezieak eta landare hondarrak edozein motatako landa lurretan erretzeko, Nekazaritza Sailaren berariazko baimena izan beharko da, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 66. artikuluan xedatutakoa betez.

Laugarrena. Foru agindua hauei guztiei jakinaraztea: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari, Arabako toki erakundeei, Ertzaintzari, miñoiei, basozainei, UAGari, nekazari eta abeltzainen elkarteei, baso elkarteei, Arabako ehiza esparruen elkarteei, parke naturaletan zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresei, Arabako Mendi Federazioari eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordezari.

Bosgarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 14a

Nekazaritza Saileko diputatua

EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA